



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Saila: OBRAK ETA ZERBITZUAK

Espediente zk.: 16-1860

Amorebieta-Etxanoko Udala

Kamioien aparkalekuaren ordenantza

kamioien aparkalekuaren erabilera arautzen duen Udal Ordenantza aldatzea behin betiko onartuta gelditzen da, 2017ko otsailaren 24an Udalbatzak egindako Osoko Bilkuran hasiera batean onartu ondoren. Erabakia 2017ko martxoaren 7ko 46. zk.dun Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu da osorik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70.2 art.an ezarritakoa betez. Aipatu Legearen 65.2 art.an adierazitako epean indarrean sartuko da.

KAMIOIEN APARKALEKUAREN ERABILERA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

1. artikulua.

- 1.- Ordenantza honen xedea da kamioiak apartzeko erabiltzen den udal aparkalekuaren erabilera arautzea.
- 2.- Ordenantza honen arauak aplikagarriak izango zaizkio Arriaganeko Industrialdean kokatutako udal aparkalekuari.

2. artikulua.

Ordenantza hau indarreko legerian ezarritakoari lotuko zaio; legeria hori, funtsean, honakoa da: Trafikoari, Motordun Ibilgailuen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 6/2015 Legegintzazko Errege Dekretua, Toki Erakundeen Ondasunei buruko Arautegia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretua, eta Toki Araubideko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta hura garatzeko arautegia.

3. artikulua.

Erregulatuko den aparkalekua herri jabariko ondasuna da; haren titulartasuna Amorebieta-Etxanoko Udalarari dagokio eta ordenantza honen 5. artikuluan definitutako ibilgailuak aparkatzeko erabiliko da. Aipatutako aparkalekuak argiztapena, garbiketa eta kamerak ditu.

4. artikulua.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

1.- Aparkalekua erabiltzeko interesa dutenek beharrezko udal baimen edo lizentziaren adjudikaziodunak izan beharko dute.

2.- Baimen edo lizentzia hori emango da aparkaleku plaza bakoitzaren erabilera komun bereziari begira, Toki Erakundeen Ondasunei buruzko Arautegiaren 77. artikulua arautzen duen bezala.

5. artikulua.

1.- Kamioiak aparkatzeko erabilerarako udal baimen edo lizentziak bakar-bakarrrik emango dira bertan kamioiak aparkatzeko; kamioitzat honako hauek hartuko dira:

- d) Lau gurpil edo gehiago dituzten automobilak, merkantziak eta salgaiak garraiatzeko egin eta eraikitakoak; haien kabina ez dago karrozeriaren gainerako zatian integraturik eta gehienez 9 plaza dituzte, gidariarena barne.
- e) Kamioi baten kabinak atoian eramateko egin eta eraikitako ibilgailu ez-autopropulstatuak.
- f) Furgoiak, betiere honela definitutako automobilak: aurreko ataleko baldintza guztiak betez, baina kabina karrozeriaren gainerako zatian eta atoietan integraturik izanez.

2.- Aparkalekua ezingo dutenak erabili honakoak dira:

- e) Motordun ibilgailuak, hala nola turismoak, motozikletak, ziklomotoiak, quadak, garraio berezarako erabiltzen direnak eta baimendutakoen izaera betetzen ez duten gainerakoak, ordenantza honen arabera.
- f) Motordunak ez diren ibilgailuak, esaterako bizikletak, trizikloak edo baimenduak izateko baldintza betetzen duten gainerakoak, ordenantza honek ezarritakoaren arabera.
- g) Edozein kasutan ere, kamioietarako udal aparkalekuaren erabileratik kanpo geratuko dira landa erabilerakoak diren traktoreak, uzta makinak eta abar eta bide publikoak mantentzeko erabilitako makineria, bai eta ibilgailu bereziak ere.
- h) Eztanda egin edo su hartzeko arriskua duten gai arriskutsuak biltzen dituzten edo euren barnean dituzten ibilgailuak. Udalak, bai zuzenean bai berak zehaztu beharreko enpresaren bidez, ibilgailuen zamen edukia ikustatu ahalko du, baldizko arrisugarritasuna zehazteko eta, halakorik egonez gero, aparkalekua erabiltzeko debekua ebatzeko.

6. artikulua.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

1.- Aparkalekuak erabiltzeko baimen edo lizentziaren adjudikaziodunak izan ahalko dira ordenantza honetan, 5. artikuluan, definitutako ibilgailuen titularrak, baldin eta honako kategoria hauetariko batean sartzen badira eta honako lehentasun hurrenkera betetzen badute.

1. kategoria: Amorebieta-Etxanoko udalerrian erroldaturik dauden edo egoitza bertan duten eskatzaileak, baldin eta haien ibilgailua alta harturik badago Amorebieta-Etxanoko ibilgailuen udal erroldan.

2. kategoria: Amorebieta-Etxanoko udalerrian erroldaturik ez dauden edo egoitza bertan ez duten eskatzaileak, baldin eta haien ibilgailua alta harturik badago Amorebieta-Etxanoko ibilgailuen udal erroldan.

3. kategoria: Amorebieta-Etxanoko udalerrian erroldaturik dauden edo egoitza bertan duten eskatzaileak, baldin eta haien ibilgailua alta harturik ez badago Amorebieta-Etxanoko ibilgailuen udal erroldan.

4. kategoria: Haien jarduera profesionala, komertziala, industrial, merkataritzazkoa edo antzekoak betetzen duten eskatzaileak, baldin eta haien negozio lokalen egoitza Amorebieta-Etxanon badago.

5. kategoria: Bestelako eskatzaileak.

7. artikulua.

Baimen edo lizentziarako eskubidea izateko, eskatzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- h) Amorebieta-Etxanoko Udalaren zuzenbide publikoko tributuak, prezio publikoak eta gainerako ordainarazpenak eta sarrerak egunean ordaindurik izatea.
- i) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean ordaindurik izatea.
- j) Ordenantza honek zehaztutako ibilgailu baten titular edo erantzulea izatea.
- k) Zirkulatzeko eta ibilgailua gidatzeko beharrezko baimen guzti-guztiak izatea.
- l) Baimen edo lizentzia eskatzen zaion ibilgailua Amorebieta-Etxanoko Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren indarreko erroldan sarturik egotea.
- m) Ibilgailua aseguratuz egotea, izan daitekeen edozein gaitz-kalte delarik eta.
- n) Amorebieta-Etxanon erroldaturik egotea, halaxe exijitzen duten kategorietan sartu nahi izanez gero.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

8. artikulua.

1.- Baimen edo lizentziak gehienez ere 4 urteko eperako emango dira eta edozein unetan balio gabetu ahalko dira inolako kalte-ordainik gabe, baldin eta baimen edo lizentziak, legezko ezarpenek edota indarreko arautegiko gainerako xedapenek ezarritako baldintzak betetzen ez badira edo interes publikoko arrazoirik badago.

2.- Baimen edo lizentzien mugaeguna bat etorriko da urte naturalaren amaierarekin.

3.- Emandako baimen edo lizentziak ez dira luzagarriak izango, ez eta eskualdagarriak ere.

4.- Baimen edo lizentziak ibilgailu zehatz baterako emango dira, ordenantza honetan ezarritakoaren arabera. Posible izango da baimena edo lizentzia indarrean egon bitartean ibilgailua aldatzea, baldin eta ordenantza honek baimena eskuratzeko ezarritako baldintzak betetzen badira, aldaketak eskatzailea sailkaturik dagoen kategoriari eragiten ez dio edo kategoria hori hobetzen ez badu eta ibilgailuak baldintza berberetan erabili ahal badu adjudikatutako plaza.

9. artikulua.

1.- Aparkaleku plaza bat erabiltzeko eskaera egin nahi duten interesdunek udalari beharrezko eskabidea aurkeztu beharko diote hori egiteko zehaztutako epe barruan; eskaerarekin batera honako dokumentazio hau ere aurkeztuko da:

- g) Plaza eskatzen duen ibilgailuaren titularraren NANren fotokopia, eskatzailea pertsona fisikoa bada, edo merkataritza erregistroan edo baliozko erregistroan inskribaturik dauden indarreko eraketa edo egokitzapen eskriturak eta IFKren fotokopia, eskatzailea merkataritza sozietatea edo pertsona juridikoa bada.
- h) Gizarte Segurantzaren ziurtagiria, zerga betebeharrak ordainduta daudela egiaztatzeko.
- i) Ibilgailuaren derrigorrezko indarreko aseguru poliza dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria.
- j) Aparkalekua erabiltzeko baimena eskatzen duen ibilgailuaren indarreko zirkulazio baimen eta fitxa teknikoaren fotokopia, ibilgailuaren zirkulazio baimena eta haren ezaugarriak egiaztatzeko, bai eta haren neurriak ere, horiek zehaztu baitute zein izango den ibilgailuak lortu ahal izango duen plaza.
- k) Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergaren azken ordainagiriaren fotokopia, baldin eta ibilgailua Amorebieta-Etxanoko ibilgailuen udal erroldan alta harturik ez badago.



**Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia**

- 1) Laugarren kategoriako eskatzaileek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute interesdunak Amorebieta-Etxanon kokatutako negozioren lokalarekin duen loturari buruz.

2.- A), b) eta c) letretan ezarritako dokumentuak ordeztu ahalko dira indarreko garraio txartelaren kopia konpultsatua truke, hura eskuratzea nahitaezkoa den kasuetan.

Kasu horretan, garraio txartela baimena egon bitartean iraungiz gero, eskatzaileak udalari aurkeztu beharko dio garraio txartela, hura berri eta berehala.

3.- Aurreko atalean ezarritakoa eskatzeko oztopoa izan gabe, udalak egokitzat jotzen duenean eskatzaileei edo aparkatzeko baimena dutenei eskatu ahalko die a), b) eta c) letretan zehaztutako agirietatik edozein aurkezteko.

4.- Eskaerek ordenantza honetan ezarritako baldintzak bete ezean, 10 egun balioduneko epea izango da atzemandako akatsak zuzendu ahal izateko. Epe horren barruan zuzentzen ez badira atzemandako akatsak, eskaera baimen prozeduratik baztertuko da.

10. artikulua.

1.- Eskatzaileei aparkalekuak esleitzeko, hurrenkera edo lehentasun zehatza ezarriko da 6. artikuluan zehaztutako kategorien artean. Horrela, lehenik eta behin, 1. kategorian sartutako eskatzaile guztien esleipena ebatziko da. Behin plaza horiek esleitu ondoren, gainerakoak, halakorik egonez gero, esleituko zaizkie 2. kategorian sartutakoei, jarraian 3. kategorian sartutakoei, ondoren 4. kategorikoei eta, azkenik, 5. kategoriakoei. Hurrenkeraren arabera tokatzen den kategorian plazak urriagoak badira eskaerak baino, zozketaz ezarriko da eskatzaileen lehentasun hurrenkera, ondoren udal zerbitzu teknikoek plazak esleitu ahal izateko.

2.- Okupatuko diren plaza zehatzak udalaren obra eta zerbitzu ataleko zerbitzu teknikoen irispideen arabera adjudikatuko dira, ibilgailuen eta aparkalekuen neurri eta ezaugarriak aintzat hartuz.

3.- Aurreko idatz-zatian ezarritako prozedurari jarraituagatik ere, gerta daiteke eskaera guztiei ezin men egitea ibilgailuen neurriak aparkalekuena baino handiagoak izateagatik; halakoetan, aparkalekuak esleituko dira eskuragarri dagoen espazioa eta aparkalekuak erabil ditzaketen ibilgailuak kontuan hartuz, baina betiere lehentasunezko hurrenkera berari jarraituz.

4.- Plazak berrezartzeko deialdia gutxienez ere lau urterik behin egingo da udalak zehazten duen egunean, eta webgunean argitaratuko da egin baino hilabete lehenago gutxienez.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

5.- Eskaerak aurkezteko epea zabalik egongo da urte osoan zehar. Plaza lortzeko beharrezko baldintzak betetzen dituzten eskatzaileak itxarote zerrendetan sartuko dira, plazak orotara berrezartzeko hurrengo deialdia egin arte. Itxarote zerrenda prestatuko da ordenantza honen 6. artikulua lehentasunezko hurrenkera errespetatuz, hau da, eskatzaile berriak dagokion kategoriaren azken postua bete beharko du.

6.- Eskatzailearen bat baztertua izan denean, plaza bat esleituko zaio 6. artikuluan ezarritako hurrenkera errespetatuz, baldin eta plaza eskatu eta ordenantza honek ezarritako dokumentazioa aurkeztu badu; halakoetan, lehentasuna izango dute aurreko ekitaldietan baimen baten adjudikaziodunak izandakoek, behin baimen horren mugaeguna izan ondoren.

7.- Titular berari ezin izango zaizkio lau (4) plaza baino gehiago esleitu.

11. artikulua.

1.- Esleitu beharreko aparkalekuak honako mota hauetakoak izango dira:

- A motakoak. Mota honetako plazak beteko dituzte gehienez ere 14 metro luze diren ibilgailuek.
- B motakoak. Mota honetako plazak beteko dituzte gehienez ere 14 metrotik gorako luzera duten ibilgailuek.

2.- Baimen edo lizentzien titularrek mota bakoitzerako tasa ordaindu beharko dute, betiere zerga ordenantzak ezarritakoarekin bat etorritik.

12. artikulua.

1.- Ibilgailua aparkatzeko lizentzia edo baimenaren adjudikaziodunak aparkalekua erabiltzeko hurrengo baldintzak bete beharko ditu hertsiki. Halaber, baldintzak onartzen dituela bermatzen duen alea izenpetu beharko du eta horren kopia emango zaio baimenarekin batera:

- m) Bakar-bakarrik baimentzen da idatzizko dokumentazioan azaltzen den ibilgailu baimenduaren sarbide eta aparkatzea. Hala ere, turismoa ibilgailua aparkatzea baimentzen da plazarako baimendutako ibilgailuaren gidariari edo titularrari dagokion plazan, baldin eta plaza hori baimenaren xedea den ibilgailuak okupatzen ez badu hark erabiltzen duen bitartean.
- n) Udal aparkalekua ezin izango da erabili, baimena eman zenez bestaldeko helburuetarako.
- o) Titularrek modu egokian erabili beharko dute parkinga, udalaren arduradunei ohartaraziz ea baimenduta ez dagoen ibilgailurik ikusi duten; orobat, baimendutako tokian baizik ez dute aparkatu beharko, esleitutako lursailaren



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

mugen barruan, bestelako partzeletan sartu gabe, ez ibilgailuarekin (edo atoiarekin) ez garraiatutako zamarekin.

- p) Erreserbatutako aparkalekua ezin izango da beste ibilgailu baterako erabili.
- q) Esleitutako aparkalekua garbi mantendu beharko da, materialik pilatu gabe.
- r) Udalari jakinarazi beharko zaio zentzuk diren aparkalekuaren eremuan izandako gorabeherak eta zeintzuk parkingaren eta haren elementuen kontserbazio egoera zuzena alda dezaketen anomaliak.
- s) Ordenantza honetan ezarritako tasaren zenbatekoa ordaindu beharko da partzela erabiltzeagatik.
- t) Udalari ibilgailuaren aldaketa jakinarazi beharko zaio, hori gertatzen denean, betiere titularitatea egiaztatuz eta 9. artikuluan jasotako dokumentazio aurkeztuz, aldez aurretik onartua izan dadin.
- u) Era berean, udalari jakinarazi beharko zaio baimenduko ibilgailuaren ezaugarrietan izandako edozein aldaketa, aldez aurretik onartua izan dadin.
- v) Aparkalekuan ezin izango da garbiketa lanik egin, ez mantentze zereginik ere, hala nola olio aldaketarik, koipeztatze lanik, gurbilen aldaketarik, euskarri edo trakzio piezen muntaiarik eta desmuntaiarik, konponketa mekanikorik, eta abar. Halaber, ezin izango da zamen manipulaziorik edo lekualdaketarik egin.
- w) Gabarra edo atoia aparkatzen bada modu independentean trakzio buruari lotu gabe, haren erabateko mugiezintasuna bermatuko da eta haren kokapen estatikoa ere (laguntza oinak finkatuz).
- x) Debekaturik dago salgai arriskutsuaren izaerako zama duten ibilgailuen sarbidea, betiere Errepublikatik zeharreko Salgai Arriskutsuen Garraioari buruzko Europar Akordioan zehaztutakoari jarraituz.

13. artikulua.

Udala ez da erantzulea izango, baldin eta baimendutako ibilgailuetan edo haien zametan gaitz-kalterik badago lapurretak, ekintza bandalikoak, ezinbesteko kasuak, ezin aurreikusitakoak, eguraldiagatik kalteak eta antzekoak direla eta.

14. artikulua.



Amorebieta-Etxanoko Udala
Bizkaia

Baimendutako titularraren erantzukizuna izango da nahigabe egin ditzakeen gaitz-kalteak konpontzea kamioien aparkalekuko instalazio eta ekipamenduetan, bai aparkatzeko maniobrak egin bitartean bai beste edozein arrazoirengatik.

15. artikulua.

Udalak segituan kenduko ditu baimenik ez duten eta aparkaturik dauden ibilgailuak, eta titularren kontura izango dira kentze lanek sorrarazten dituzten gastuak.

16. artikulua.

Aparkalekua erabiltzeko baimenaren titularrak batzuk izanez gero, horiek guztiek aurre egin beharko diete modu solidarioan tasaren ordainketari, aparkalekuan eta instalazioan sor ditzaketen gaitz-kalteen kalte-ordainari eta, hala badagokio, ezar diezazkieketen zigorreire.

17. artikulua.

1.- Udalak fidantza bat eratzeko eskatu ahalko du legez onarturik dagoen edozein modutan. Fidantzak udal aparkalekuko plazak modu egokian erabiltzeko eta birgaitzeko betebeharren betetzeari erantzungo dio, hau da, baimenaren unearen aurreko egoerara lehengoratzeko betebeharrari.

2.- Era berean, fidantzaren zenbatekoa erabili ahalko da udal aparkalekuan sor daitezkeen gaitz-kalteen kalte-ordainerako, bai eta ordenantza honen aplikazioa dela-eta sor daitezkeen zigorren ordainketarako ere.

3.- Fidantzaren zenbatekoa honakoa izango da: plaza erabiltzeko baimenaren denbora osorako likidatutako tasaren erditik osora bitartekoa.

18. artikulua.

Aurreikusita dago aparkalekuaren instalazioak jendaurrera irekitzea eguneko 24 orduetan, asteko 7 egunetan eta urteko 365 egunetan.

19. artikulua.

1.- Baimena emateko epea amaitu eta aparkaleku plaza libre utzita, Udalak egokitzat jotzen dituen ikuskapenak egin ahalko dira ordenantza honetan eta erabiltzaileentzako baimenetan ezarritako betebeharrak eta baldintzak betetzeko.

2.- Erabiltzaileek ordenantza honetan ezarritako betebeharrak eta baimenen baldintzak betetzen dituztela, ez dela gaitz-kalterik sortu eta ez dagokiola ez zehapenik ez zigorrik egiaztatu ondoren, udalak fidantza itzuliko du, baldin eta halakorik exijitu bada baimena ematerakoan.



Amorebieta-Etxano Udalak
Bizkaia

3.- Halakorik ezean, sor daitezkeen erantzukizunak exijituko ditu eta, era batean, fidantza bahitu ahalko du hura jarri den kasuetan.

20. artikulua.

Aparkalekua erabiltzen duten ibilgailuak ezingo dira aparkaturik egon mugitu gabe hilabetetik gorako epean; hori egiteko zioa arrazoitu eta egiaztatu beharko da. Ibilgailua adierazitakotik gorako epean erabiltzen ez bada, ibilgailu hori bertan behera utzita dagoela pentsatzeko prozeduraren izapideei ekingo zaie; hala, baimena edo lizentzia balio gabetzeko tramiteak ere hasiko dira.

21. artikulua.

Arau-haustetzat hartzen da kamioiak aparkatzeko erabilerari lotzen ez zaion jarduera oro, bereziki ingurunea hondatzen eta ingurumena kaltetzen duena. Toki Araubideko Oinarriari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legearen IX. tituluak ezarritakoarekin bat etorritz, arau-hausteen eta zigorren honako araubide hau ezartzen da:

4. Oso arau-hauste larriak:

- a) Baliozkoak ez den edo manipulaturik edo faltsifikaturik dagoen baimena erabiltzea.
- b) Kamioen udal aparkalekuaren instalazio edota ekipamenduetan kalteak sortzea.
- c) Udal aparkalekuaren barruan kokaturik dauden beste ibilgailu batzuei kalteak eragitea.
- d) Udal aparkalekuaren barrutian objektuak uztea, likidoak, materialak eta antzekoak isurtzea, baldin eta ingurumenari, apainketari edo osasun publikoari eragin ahal badiete.
- e) Beste erabiltzaile batzuei ez uztea udal aparkalekuan sartzen
- f) Ibilgailuaren titularitatea edo gida baimena egiaztatzen duten tresnak faltsutzea edo aldatzea.
- g) Baimenaren txartel egiaztatzailea manipulatzeko edo aldatzea.

5. Arau-hauste larriak:

- a) Aparkalekua erabiltzeko indarreko baimenik izan gabe.
- b) Ibilgailua hilabetetik gorako epean aparkaturik uztea justifikatu gabeko arrazoia dela eta.
- c) Emandakoaz bestaldeko plaza bat erabiltzea ibilgailua apartzeko.
- d) Kamioen aparkalekuan ibilgailuak konpontzeko, mantentzeko edo hobetzeko lanak egitea.

6. Arau-hauste arinak:



Amorebieta-Etxano Udala
Bizkaia

- a) Udalari hilabeteko epean ez jakinaraztea baimena eskuratzeko eskubidea ematen zuten baldintzak aldatu direla, hori gertatu denetik zenbatzen hasita.
- b) Udal aparkalekuaren beste erabiltzaile batzuei trabak sorraraztea.
- c) Objektuak bertan behera uztea baimendutako aparkalekurako gordetako tokian.
- d) Kamioiak aparkatzeko erabilerari hertsiki lotzen ez zaion jarduera oro, bereziki ingurunea hondatzen eta ingurumena kaltetzen duena.

22. artikulua.

Aurreko artikuluan aipatutako jarduketegi honako zigor ekonomiko hauek ezarri ahalko zaizkie:

- d) Oso arau-hauste larrien zigorra 1.500,01 eurotik 3.000 eurora bitartekoa izango da.
- e) Arau-hauste larrien zigorra 750,01 eurotik 1.500 eurora bitartekoa izango da.
- f) Arau-hauste arien zigorra 50 eurotik 750 eurora bitartekoa izango da.

Zigor horiek ezartzeari kalterik egin gabe, baimena baliogabetzeko erabakia ere hartu ahalko da.

23. artikulua.

1.- Aurreko artikuluetan ezarritakoa betez ezar daitezkeen zigorrak gaitz-kalteen kalte-ordainetatik aparteak izango dira.

2.- Aurreko artikuluetan aipatutako erantzukizun eta zigorrak bide exekutiboaren bidez oinarritu eta exekutatuko dira.

3.- Ordenantza honek arau-hausteen eta zigorren erregulazioari buruz ezartzen ez duenari dagokionez, aplikagarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigor Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legea.

Amorebieta-Etxano, 2017ko ekainaren 29an.

ALKATEA,

Izp.: Andoni Agirrebeitia Abendibar,